

teko ere, bekatu edo okerrera asmorik gabe, ordea.

Ik. Bekatua; Deabrua.

Teodizea

Jatorriz "Jainkoa zurikatzea" esan nahi du grezieratik datorren hitz horrek. Leibniz-ek erabili zuen lehenengoz 1710ean, Jainkoaren defentsa adierazteko: hau da, munduan ageri den gaizkiaren aurrean Jainkoaren ontasuna eta *ahalgutzia frogatzea filosofiarenean bidez. Erlijio gehienak eta hainbat filosofia saiatu dira, saiatu, gaizkiaren arazoa argitzen, eta horrek, Jainkoari ezagutzen zaizkion bikaintasunak edo atributuak onartzeko dituen eragozpen teoriakoak leuntzen. Irtenbide ezberdinak asmatu izan dituzte.

Teodizea hitza erabiltzen dute gaur, Jainkoari buruzko ezagutza filosofikoa eta naturala adierazteko, eta bide horretatik Teologia naturala-rekin berdintzen da.

Ik. Gaizkiaren arazoa; Ongia eta gaizkia; Jainkoaren bikaintasunak; Erlijio naturala; Teologia naturala.

Teofagia

Grezieratik hitza: "Jainkoa jatea" esan nahi du. Erlijio-fenomenologiaren arabera, elkartasun-errittoa da, Jainkoaren eta gizonekumeeen arteko batasuna adierazten eta egikaritzen omen duena, eta --sinbolo bidez nahiz benetan-- otordu gisa gertatzen dena.

Ik. Oturuntza sakratua; Elkartasun-oparia.

Teofania

Grezieratik hitza: Jainkoaren agerpena esan nahi du. Horrela deitzen dituzte erlijioek Jainkoaren benetako agerpenetat hartzen dituzten gertakariak. Jainkoaren haragiztapenetik bereizi beharra dago, gizalagun edo animalia edo gauza iraunkorren batean Jainkoak ipintzen duen bere bertakotasun iraunkorra bait da hori. *Hierofaniaren mota da teofania.

*Jesukristoren jainkotasunaren nabarialdi bereziak *epifaniak edo agerkundeak deitzen ditu gehienetan kristautasunak.

Era askotara gerta daiteke teofania: ustekabean nahiz nolabait eraginda; misterio-erritoen bidez, nahiz izadiko gauzetan, etab. Ik. Misterio-erlijioa.

Orokorkiago, zenbait teologiaren arabera, mundu osoa da berez Jainkoaren agerpena edo teofania.

Ik. Gizakundea; Haragiztapena; Hierofania.

Teofilantropia

Frantziako Direktorioak 1796an kristautasuna ordezkatzeko sorturiko erlijiozko mugimendu deista, "Jainkoaganako eta gizakienaganako maitasuna" zuena helburutzat.

Jainkoaren izana eta arimaren *hilezkortasuna zituen bere sineskizun edo *dogmak; Parisen katolikoen elizak izandakoetan biltzen ziren Jainkoa goresteko erlijio berrikoak; kristau-sakramentu batzuk (*bataioa, *ezkontza, *sendotza) imitatzen zituzten.

Nepoleon-ek izenpeturiko *konkordatuarekin bukatu zen mugimendua.

Ik. Deismoa.

Teogonia

Jainkoen sorrera, horien "genealogia" eta horien arteko "famili" harremanak azaltzen dituen *mitoa da.

Ezagunenetarikoa Hesiodoren teogonia da, Grezian; baina *xintoismoan eta feniziarren artean ere aurkitzen da. Sarritan jainkoen benetako genealogiak ematen dituzte.

*Kosmogoniarekin batera joan ohi da.

Teokrazia

Erregimen politikoaren forma, asmoz Jainkoa bera buruzagitzat hartzen duena, eta lege nagusitzat liburu santuak eta benetako agintaritzat *apaizak edo "Jainkoaren ordezkakoak" dituen.

Era hertsia edo lasaia, Herri eta garai askotan aurki daiteke horrelako erregimen politikorik. Nabarmenena agian antzinako Israelena da, batez ere monarkiarik ez zuenekoan, eta beste Herriren baten menpe ez zegoenekoan. Tibet lamaista antzinako Israelen antzekoa zen. Antzinako Egyptoko eta beste Herri askotako erregimenak ere nolabaiteko teokraziatzat jo daitezke, erregeak edo faraoiak jainko gizoneginatzat hartzen zituztenez gero.

Islamismoak, berriz, abiaburukoa du teokrazia; baina erregimen musulman moderno gehienak aski sekularituak dira, eta ezin daitezke benetan teokraziatzat har.

Kristautasunaren historian ere badira garaiak, teokrazi joerak gailendu direnekoak; Erdi Aroko zenbait aita santurena; bereziki Kalbin-ek Genève-n ezarritako erregimenekoa; etab.

Ik. Lamaismoa; Judaismoa; Kristandade-erregimena; Klerikalismoa.

Teologia

"Jainkoari buruzko mintzoa" esan gura du, jatorriz, grezieratik hitz honek.

Errebelazioko eta fedeko edukinen gogoe-ta eta azalpen sistematiko eta zientifikoa da. Bestelako erlijio-ikasketa-motei hertsiki loturik dago teologia, batez ere erlijioaren filosofiari, baina filosofiak, kanpotik-edo egindako erlijiozkoaren azterketa kritikoa izan nahi duen bitartean, erlijio bakoitzaren barrutik eta fedetik egin nahi du horren baitarapen errazionala teologiak.

Zientifikoa da teologia, abiaburu batzutatik hasirik eta horien arabera arrazoi bidez jakintza-alorren bateko edukinak sistematikotzea eta taxutzea baldin bada zientzia, eskolastikak definitu izan zuenez.

Teologia ez da, esperimentuzko zientzia, esperientziakoa bai, ordea, erlijiozko egiei buruzko atxekimendutik egiten delako. Bestalde, zientzia esperimentalak aurrerapenaren erizpidez neurtzen baldin badira, teologiaren zientziakotasuna eta bizitasuna ez dira horrelako aurrerapenaren arabera neurtzen. Nolabait hermeneutika- eta itzulpen-maillakoa da teologia: hau da, errebelazioko eta fedeko egiak eta edukinak kultur barruti bakoitzera sistematikoki eta dinamikoki hizkuntza (hizkera) eta kultura berrira itzultzea da teologia, goi-agerkundera "ulertzeko" eta fedezko bizierarako ondorioak ateratzeko.

Horregatik, teologiaren historiako aurrerapena, gehiago da kanpotik datorkiona; hau da, kultura berritik fedezkoari dator-kion argi berria. Baina teologiazko tradizioa ere handituz, hedatuz eta goratuz doa.

Kristautasunak bereziki landu eta zabaldu du teologia, mendebaldeko filosofia errazionalak bultzaturik batez ere. Izan ere, teologiaren asmoa zera da: "fides quaerens intellectum", hots, adimenaren bidez fedeko egiak argitzea et sakonago ulertzea. Ekialde urruneko erlijioetara ere mendebaldetik sartu zen aro modernoan teologia zientzia.

Adar askotan banatzen da teologiazko zientzia; bereziki: historikoa, espekulati-boa eta praktikoa. Baina horien barruan beste hainbat birbanaketa egiten dute teolo-goek: **Historikoa:** Biblikoa eta *Exegesia, *dogmen historia, eta *Elizaren historia. **Praktikoa:** *aszetika, *mistika, *pastoral-tza, *liturgia, *misiologia, *kerigmatika, etab. **Teologia sistematikoa**, edo dogmatika eta etika: dogmatikak, bestalde, hainbat parte ditu: *kristologia, *eklesiologia, *sakramentologia, *eskatologia, protologia, etab. Izen eta banaketa ezberdinak, teologi sistema ezberdinen arabera.

Bestalde, teologiak izen asko hartu ditu historian, eskola eta korrante eta metodo ezberdinen arabera: teologia eskolastikoa, teologia liberala, *ezezpeneko teologia,

teologia herritarra, teologia beltza, poli-tikoa, etab. Ik. Eskolastika; (Teologia hitzaren peko sarrerak); Askapen-teologia; Kultur teologia.

Adiera zabalagoz, fededunak bere fedea arrazoi bidez ulertzeko egiten duen edozein ahalegini deritza teologia.

Erlijio handietan instituzionalduta dago teologia, eta "teologok" garrantzi handia eduki ohi dute. Eliza Katolikoak apaizgorako teologi ikasketa oso programatuak ditu. Eta ikerkuntzarako eta irakaskuntzarako teologi fakultateak eraiki ohi ditu.

Ik. Jainkoaren hitzaren adierazpena; Irakas-bidea; Zientzia eta erlijioa; Erlijio-zientziak; Sinbolismoa.

Paulo Agirrebaltzategi

Teologi eskola

Teologiaren historian, halako ikastetxe-ren batean edo maisuren baten edo gehiagoren inguruan sorturiko pentsaera-korrantea, gehiago ala gutxiago sistematikotua eta zehaz-tua. Hainbat eskola aipatu ohi dituzte kris-tautasunaren historian zehar: Alexandriakoa eta Antiokiakoa antzinatzen; dominikanoa eta frantziskotarra Erdi Aroan; etab.

Ik. Alexandriako teologi eskola; Antiokiako teologi eskola; Eskola dominikanoa; Es-kola frantziskotarra; Teologia dialekti-koa.

Teologi eskola, Alexandriako

Ik. Alexandriako teologi eskola.

Teologia apofatikoa

Jainkoaren ezagutzara iristeko, Bera zer ez den esanez jokutzen duen teologia da.

Ik. Ezezpen(ezko) teologia.

Teologia apologetikoa

Teologia osoaren nolabaiteko arrazoi-a ematen duena, errebelazioaren kritika teolo-gikoa eginez: hau da, teologiaren ahalbidea, Jainkoaren eta gizakiaren aldetik, horren gertaera historikoa eta hori lantzeko bal-dintza psikologiko, historiko eta sozialak, etab. aztertzen dituen.

Errebelazioa teologia osoaren oinarria denez, eta hori *fedetik bertatik aztertzen duenez, oinarritzko teologia ere deitzen da gehiagotan gaur. Teologiazko jakintza denez, teologiaren sarrerarekin berdina da sarri-tan. Bestalde, teologia osoa apologetikoa esaten da; fedearen defentsako eta zurikape-neko eginkizuna ematen zaionean.